

ELKARRIZKETA

URRESTARAZU'TAR ANDONI

Bayona'n, 1964'ko garagarrillaren
24'n.

"Jakin"-en artezkari agurgarria
Arantzazu

Agur biotzez,

Arestian eldu zait aldizkari orren aro berriaren lenengo zenbakia, joan dan orrillari dagokiona. Bai ta go-goz artu ere Arantzazu txoko maite ortatik datorrigun guzia bezela.

Irakurleekin alkarizketarako bide zabala eskeintzen duzutela pozik ikusten dut, eta luzaroan izan naitzaizue bide ortan, barna abiatzeko zalantzan; baña azkenez, ba-noa, trinki-tranka bada ere, nire urratsak bertan ematen, euskerarenganako maitasunak ortara bultzaturik.

Ia "gaiak", "euskerak" ta "presentazioak" atsegin ote zaizkigun galdetzen duzute. Ez dizuet lenengo ta irugarrenari buruz ezer esango; oietaz eta guziaz ere nik baño askoz obeto zuek ikusiko baituzute egokiena zer eta nola izango zaizuen. Nere xedea, emen, darabilzuten eus-

kerarekiko mintzatzea ta nire iritzia adieraztea izango duzute bakarrik.

Azken urte auetan, euskal-idazle askok, itzetan eta esakunetan ere, erderakadak erruz sartzen dituzte beren idazlan guztietan. Eta orrelaxe dator zuen aldizkari ori ere, erderakadaz zearo josirik. Badi-rudi "eskola" berezia sortu dala, idazkera ori esondatzen duen eskola. Esan ote genezake Arantzazu'ko eskola dugularik orixe? Dana dala, zabaltzen ari zaigu jokera ori; eta nire iritzi kaxkarrean euskarentzako kaltegarritzat daukadalarik, barka ezaidazute, otoi, argi ta garbi orrelaxe esatea, bai ta nire ueste orren azalpena ematea ere. Babiliteke okerturik ni egotea, baña zindo zurrian, norberak gauzak ikusten dituen bezela esan bear.

Idazketa ori darabilen idazle bati, bein, orixe "naturaliki" irtetzen

zitzaiola entzun nion. Gero, nire buruari maiz auxe galdetu diot: nondik irteten zitzaion idazle ari "naturaltasuna"?, bere baitan zeukan euskaldun izaeratik ala erdalduna zanetik? Guziok gera euskaldunak euskeraz dagigulako, baña ba-gera erdaldunak ere erderaz jakin eta erabiltzen dugulako; eta nire uztez, euskaldun baño erdaldunago, naiz eta jayotzez euskalduna izan. Nire gardiz, ona emen zergatik.

Aundiak naiz txikiak, guziok dauzkagun ezagupen geyenak, guziak ezpadira, erderaz gureganatu ditugu guziok ere, espanieraz ala parantzeraz ala lateraz bereziki. Gaiak ikasteko erabilli dugun erderak-aur eta gazte izan geran urte ta aro egokienetan —ezagupenekin batera, bere gogo berezia barneraño sartu digu ala bearrik; gogo ori, gero, nai ta nai ez sartu geran bizikera osoan areago tinkotu zaigu ta, jakina, erdal-eguratzaz inguraturik eta erdal-kulturaz blai-blai eginda, guziok, geyenok bederen, bakoitzak berez —"naturalki"—, erderaz oldotzen dugu. Eta orrengatik ain zuzen, idazten diran lan asko erderatik egindako itzulpena dirudite, erderaz oldotutako asmoak euskeraz emanda. Ortan eztago nireztat arritzekorik, guztiz bidezkoena baitut.

Erritarren artean ere orobat gertatzen dala esan dezakegu. Esate baterako: Gaur oso maiz, eztakit beti ote dan, zenbaki aunditxoak

esan nai dituztenean, naiz eta euskeraz mintzatzen ari, erderaz esaten dituzte zenbakiok, ene ustez eskoletan ikasitako kontuak erderaz ikasi dituztelako; eta orrela, "naturaltasunaz", ots, erraztasunaz erderaz ateratzen zaizkie. Orixe beruntz daramagun bidea: gaur zenbakiak eta beste itzak, biar areago, gero ta itz geyago, eta azkenez erdera utza irtengo zaigu guzloi "naturaltasun" osoan, euskaltasun guzia galdurik.

Alakoz, esandakoan ikusi bear dugu euskeraz idazteko oztopo aundiarena, eta nire aburuz, euskal-idazle guziek elukete orrezaz iñoiz aiztu bear-izango; eta ondorioz lanak orraztu ta orraztu egin bear ere; eliztia, joskera, esakunak eta itzak, euskera guzietan bizi dalako.

Euskeraz beti oldozteko, euskaldun jayo ondoren, ikasketa guztiak euskeraz egin bear-izango lirake ta euskal-eguratsean bizi ta azi ere. Gertatuko al da orrelakorik iñoiz Euskalerrian? Gaur ezifia dirudi, baña ametssezkoa bada ere jomuga bezela artu bear-izango genuke ori. Orrela gerturik azaldu liteken euskalduna, euskaldun osoa izango litzake, ta ura bai, euskaldun arek euskeraz oldotuko luke ta bere lanak guztiz jatorrak izango lirake. Gaur daramagun bizieran eta beste egokiago izan litekenean ere, ori ametsa bezela ikusi bear; baña alan eta guztiz be ortaruntz abiatzea bearrezkoa dalakoan nago, elburua-

ri alik eta geyen urreratzeko xedeaz.

Ba-dakigu erriaren aoran erderakada ugari entzuten dala, eta idazle askok, orrengatik edo, orobat egiten dutela. Baña erderatik artutako itz berri oiek ez da erria bera artu dituen; indarrez jarri dioten erdal biziak eta eskoletan berezi-bereziki, arrerazi dizkiote oso; eta euskeraren galtzean orixe urrats bat baño besterik ezta, beerako bidean urrats egokienetakoa.

Euskerari eusteko erderakadaen bidea ona izango balitz, ezkenuke ezer esango; baña ementxe dugu iparralde ontako izkera bai ta idazkera ere; erderakadak burrustaz darabilzkite aspaldidanik, betidanik edo, ta euskera galtzen ari da, egoaldean baño azkarrago ere nire ustez.

Ez, erderakadak ez dute euskera gaizkatuko, ez eta garbikeriak ere, noski. Eta euskeraren alde egiten dan eta egin diteken guzia ontzat artzekoa baldin bada, eta guzia ere laguntzeko bearrean egonarren, nire iritziz guztia alper-alperrik izango da euskera eskolan eta ikasketan sartzen ezpadugu, euskeraren bidez euskal-gogoa ere ume ta gazteengan txit utsita, guztiz tinkotu ta sendotua izan dedin. Ezer urruñatu gabe, orixe bearrena ta ezinbestekoena.

Orrrentxengatik eta noizpait euskera eskolan sartzeko bidea idekiko zaigulakoan, orixe izan bear euskaltzale guzien karbada aundi ta bereziena. Eta bere ordurako, eus-

kal-irakaskintzari dagokion guzia antolatzen ari bear-izango gifaake oraintxe bertan, batez ere ikasliburuak eta irakazleak gertutzen. Lan ori, gañera, ez da emengo alango talde batek bakarrik egitekoa; alik eta euskaltzale geyenak sartu bear-izango lirake ortan, guziak ahal-izan ezkerero obe, izen aundiko erakunde batean bildurik, len izan genuen "Eusko-Ikaskuntza"-ren antzekoan.

Lan ortako azpegi berezia itz-bildumaena izango genuke, eta oietxek gertutzeko, ene ustez, "Euskaltzaindi"-ak ortxe, 1956'garrenean egin zuen batzarren emandako aolkua oñarriz arturik. Irakaskintzan erabiltzen diran gaietakoak lenbizikoak izateko, ta gero beste guztietara ere jo bear-izango litzake. Asiera, beraz, irakaskintzan, eta itz-bilduma guztietan itz bakoitzaren esan-naia ta zentzuna euskeraz ere emateko.

Euskal-kulturak beste kulturaren bidean barna joan bear-izango du bere burua jaso nai baldin badu ta, orrela, izkuntza gaizkatzeko. Kultura guztiak, gure aldamenean dauz kagunak batez ere, irakaskintzan dauzkate, nire ustez, beren ardatza ta mamia. Irakaskintzarena erakunde aundi ta garrantzitsuena da kultura oietako laterrietan; diru asko ematen dute irakaskintza osoa ordaintzeko, ta beti bazterretan guxti izaten dala salatzen ari dira. Irakasleak milla ta millaka diardute egunero ume ta gazteak irakas-

ten, ortarako lendik beren burua ongi gerturik. Eta, gero, naiz eta biziarekiko guzia bakoitzak bere izkuntzaz antolaturik izanarren, amai-ka erakunde ikusten dira alde guztietan, eskoletan ikasitakoa tinkotzeko ta kultura bera indartzeko ta zabaltzeko. Tokitan gaude, gu, gure gifoan, orrenbeste egiteko; eta orixe zaigu bearrena, enurarik ez nigan ortaz.

Gure bear orren aundiaren aurrean, ene ustez, euskaltzale guziok, Euskalerrri osoa begiratuko luke erakunde aundi ta berezi batean alkarturik egon bear-izango genuke, gure kulturari dagokion guzia, urratsez-urrats, lenengo irakaskintzan asi-ta, bete al-izateko alegifetan.

Norengan euskeraren egokera txarraren errua? Biengan bereziki: Euskalerrri'arengan bertan lenengoz, ifioiz euskera kultura-bideetan sartu nai-izan eztuelako; eta inguratzan gaituzten erdal-kulturetan gero, gure izkuntza ito egiten digutelako. Eta euskera gaizkatzeko eginbidea, Euskalerrri'arengan ere lendabizi, geugan, geu baikera gaur Euskalerrria.

Asieran esan dudanez, "Jakín"-en agertzen diran erderakadak erabiltzea, oker-bidea dalakoan nagó, ortxe agertzen dan egutegian ere eramaten dana. "Jakín", eiki, ez du erriak irakurriko, gaiak dirala kari; egutegia bai, osterá, ta ortan erriak ikasteko iturria edo dauka;

eta sarri, ene iduriko, egokiak ez diran gauza batzuk agertzen dira. Esate baterako: garagarrillaren 2'garren eguneko orrian auxe irakur diteke: "Ona emen Eleizaren alkartasuna nolakoa izan bear duen ilustratzen duen ejemplua". Iru azken itz oiek erabilli orde, ez ote lirake jatorrago ta erriarentzat ulergarriago izango jarri litezken beste iru aukerak edo: ...adierazten duen jazoera (edo gertaera)? Erriak irakasten zaiona ikasten du, ta euskerari buruz, zuen egutegia dute gure erri-lagunek gaur eskola berezia. "Kin" atzizkia ere, maiz, gaizki erabiltzen dala uste dut.

Barka nazazute "Jakín"-en egille agurgarri oiek, arren, etzaituztet geyago nekatu nai; esan dizuedan guzia ta gafierra nezakena ere, itz motz auetan adierazi liteke ondorio bezela: Ene ustez euskeraren alde lan egoki ta onurakorra egiteko garbizaletasunean ari bear da, jakíña, garbizalekeriraño eldu gabe. Ez da euskeraren ogenik lateraren semea ez izatea, ta ez deritzait txalogarria danik semetxako biurtu nai-izatea, orixe baitarudi askoren xedea; orrela gure izkuntza guztiz itxusitu baño besterik elitzake egingo.

Arantzazu'ko Ama Done onak lagun gaitzala gure Erri ta gure izkuntzaren aldeko lan guztietan.

Zuenganako adei-onez beterik